

IL AZALPEN PROBA • <i>Manila konexioa</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nor*ki* idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 300 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

Kasian tente geratu zen, zirkinik egin gabe. Dorini begiratu zion, gero ezkerreko atera, gero harraskara, gero berriro Dorini... Eta une horretan, bat-batean, kolpe handi baten hotsa aditu zen gelan.

Jauzi eta oihu egin zuten biek batera, ikaraturik, baina berehala ohartu ziren zarata ez zetorrela ezkerreko atearen atzetik, hormako kutxa handitik baizik. Izualdia pasaturik, Kasian buzoira hurbildu eta ireki egin zuen. Txakur zuria zegoen barruan, gaztetxo itxurakoa. Orban beltzak zeuzkan begien inguruan, belarrietan eta mutur aldean. Esparatrapuz estalita zuen ahoa, eta sokaz lotuta hankak.

Burusoilak eskuetan hartu zuenean, lehenik eta behin esparatrapua kendio zion eta txakurra, buztanari eraginez, atzamarrak miazkatzen hasi zitzaion. Kasianek, orduan, lokarriak askatzeari ekin zion.

–Zertarako utzi behar duzu libre? –galdetu zion Dorinek?

–Gizajoa! –erantzun zuen Kasianek, zereginarekin jarraituz amaitu arte–. Beitu ze sinpatikoa den –laztan egin zion buruan txintxo itxurako animalari.

IL AZALPEN PROBA • <i>Manila konexioa</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 300 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

Bilbao plaza zeharkatu eta gero Frantzia kalean barneratu zen eta, Artium museoa ezker aldean utzita, saltokiz betetako ingurunera hurbildu zen. Hiriko toki jendetsuena izan ohi zen hura, areago larunbat arratsaldeko azken orduetan, dendak ixterakoan. Kale zabalaren eskuinaldean gelditu zen R-5a, autobus eta taxientzako bidea oztopatuz, eta Simonek, burua leihatilatik ateraz, betaurreko beltzeko zozketa-saltzaileari deitu zion:

—Aizu, gizona, zer loteria mota duzu gaur salgai?

Itsua kotxeraino hurbildu zen bere makilaren laguntzaz, eta zera esan zuen, irribarretsu:

—Biharko superkupoiak gain, beste gauza interesgarri batzuk dauzkat saltzeko –ahoskeraren tonua jaitsi zuen–: loteria eta apustu desberdinak, top mantako CDrik onenak, harribitxi faltsuak, rolexak, kontrabandoko tabakoa...

Simonek ere hasierako jarrera aldatu eta isilka eta serio jarraitu zuen:

—Gorde oraingo gauza horiek eta esadazu zer dakizun anakonda orojaleei buruz.

—Denetarik jaten dutela.

—Eta pantera arrosei buruz?

—Ez direla existitzen.

—Baduzu ezer interesgarririk kontatzeko?

—ONCEk utzi egin dio txirrindulari taldea babesteari.

—Hori baino ez?

—Duela gutxi lapur bat ikusi dut kalea galapan zeharkatzen, kaiola bat besapean eta loro berritsua honen barruan. Txoriak “kabrrrrroia! kabrrrrroia!...” zioen behin eta berriz.